

A2

Zu ekusi ta beste gauzarik...

1160-1163 orriak ia osorik galdu direnez, ez dakigu ziur poema hau hemen hasten den. 1-4 lerroen letrakera gainerakoena baino biribilagoa eta beste eite batekoa denez (letrakera-aldaketa bera dago eskuizkribuko beste leku batzuetan ere, 1147v-1148r orrialdeetan adibidez), pentsa daiteke idatzaldi batean idatzia dela ahapaldi hori (1-4), eta esku berak beste idatzaldi batean idatziak gainerakoak (zorrotzagoa eta etzanagoa da 5-24 lerroetako letrakera). Hala dela onartzen badugu, are beharrezkoago egiten da aurretik zerbait galdu dela pentsatzea, galduriko ahapaldi-segida baten bukaera bailirateke 1-4 lerroak.

Zalantzarik gabe, guk ezagutzen dugun moduan amaitzen zen poema hau. Azken ahapaldi hori da, hain zuzen, poemaren gaia laburbiltzen duena: maitea ikustearekin bat maitemindu da harekin, lehen begi-kolpeko maitasunez, eta, erantzun onik hartu ez duenez, zorigaitzean bizi da harrezkero. Maitasunak nekea eta nahigabea dakar, baina ezin zaio ihes egin. Ez dakigu gaztelaniazko lerroak beste gaztelaniazko poema batekoak diren eta euskarazko hau haren glosa gisa egin den, ala, besterik gabe, euskarazkoan gaztelaniazkoak txertatu diren. Hizkuntza-txandakatzearen errekurtoa eskuizkribuko beste poema batean ere erabili da (*Barri onak dakart... A13*).

<1164r>

[...]

Zu ekusi ta beste gauzarik
oi¹ ezta zerren² ekusi,
zegaiti alegriarik ez da
munduan zure parerik.

Hain kontenturik nago ni zugaz
nola zu nigaz gaxtoto,³
zegaiti Jaunak egin ez naberen
zure kontentamentuko.⁴ 5

Zure begiok nekusenean,
bertati⁵ neben ezautu
oi eta ezin zeindidala
neure bizian gozadu.⁶ 10

Ene laztana, ze daidizu
zeure gogoan pensadu⁷
zuk ni gaxki tratadu arren
oi ni naxala aspertu.⁸ 15

Zegaiti emaiten deustazu
zuk honelako bizia?
Bizi naxala iragaiten⁹ dot

¹ *oi*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

² *ezta zerren*: ‘ez da zertan, ez da zergatik’; zehar-galdera da, ez kausazko perpausa.

³ *gaxtoto*: ‘gaizto, gaizki’.

⁴ *kontentamentuko*: ‘gozamenerako’.

⁵ *bertati*: ‘berehala’.

⁶ *ezin zeindidala / neure bizian gozadu*: ‘ezin izango zintudala neure bizian gozatu’.

⁷ *ze daidizu / zeure gogoan pensadu*: ‘ez dezakezu, ez ezazu zeure gogoan pentsatu’.

⁸ *aspertu*: ‘nekatu, adorea galdu’.

munduko pena guztiak.

20

*Penado de tanta pena
nago zu ekusizkero,¹⁰
y ninguna cosa buena
oi enetako ez dago.*

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A2 – Zu ekusi ta beste gauzarik... (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

⁹ *iragaiten*: ‘iragaten, igarotzen’.

¹⁰ *zu ekusizkero*: ‘zu ikustean’. Perpaus honetan baldintzazko ñabardura ere antzeman daiteke, beharbada.